# anboto

TOKIKOM

2012ko urriaren 11
10. urtea - 475 zk.
durangaldeko astekaria
www.anboto.org



**Herririk Herri** | 4
Aurrekontuak lantzeko parte-hartze prozesua hasiko du Elorrioko Bilduk

**Berbaz** | 9
P. Cascon: "Gatazkak onartzen eta modu baikorrean aurre egiten ikasi behar dugu"





**Kirola** | 15
DRTko gizonen taldeak trantsiziokoa lez definitu duen denboraldia hasiko du


DURANGALDEA | 2

## Dena prest jaiei ekiteko

Durangon azken prestaketetan murgilduta daude, barikuan San Fausto jaiei hasiera emateko.



Kepa Aginako

DURANGALDEA | 5

### Mobilizazioak San Eloy eta Iketz enpresetan

LABek azaldu duenez, konkurtso-prozedura eskatu dute bi enpresentzako. San ELoy Elorrion dago eta Iketz Abadiñon. 230 beharginek egiten dute lan bi enpresetan.




DURANGO | 2

### Igerilekuko tabernako langileak soldata barik

Landakoko eta Tabirako igerilekuetako tabernak kudeatzen dituen enpresak beharginei ez dizkiela soldata guztiak ordaindu jakitera eman du bertan jardun duen eta bost soldata falta dituen langile batek.


ALKIMAX
Alquilamos soluciones
Applus ISO 9001
Applus ISO 14001
Applus OHSAS 18001



Eitua industrigunea
71C
48240 BERRIZ
(Bizkaia)
94 682 45 50
www. alkimax.com
alkimax@alkimax.net



**Durangaldea** | 6
Izarren Distira artista lehiaketa martxan ipini dute

**Berriz** | 7
Auzo-taxi zerbitzua astelehenean jarriko du martxan udalak

**Otxandio** | 8
Zine zaharraren eraikina botatzen hasi da udala

**Zaldibar** | 4
Haurreskolako eraikin berriaren proiektua onartu dute

# HERRIRIK HERRI

Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGO

# Durangoko jaiak, txupinazo eta pregoiaren zain

## Dantza taldeek barikuan jaurtiko dute txupina udalean; Bilgune Feministak eguenean txosnetan

Dena prest dago Durangon aste biko jai maratoia martxan ipintzeko. Txosnagunean hozkailuak edariz betetzen hasi dira. Sokamuturreko hesiak ere ipini dituzte Alde Zaharrean.

Aurtengoegitarauan ezohiko ordenan antolatu dituzte ekitaldi bi: sokamuturraren lehenengo ekitaldia bariku goizean izango da, eguerdian udaletxeko txupinazoak jaiei ofizialki hasiera eman aurretik, hain zuzen.

Txoritxu Alai, Tronperri eta Kriskitin dantza taldeek botako dute aurten txupinazoa eta pregoia irakurtzeaz ere arduratuko dira. Txosnetako txupinazoa, berriz, eguenean izango da Bilgune Feministaren eskutik. Domekan Inurri Eskaut taldekoek beste txupinazo bat jaurtiko dute, txupinazo txikia.

San Fausto Eguna zapatua izanda, durangarrek goizetik gauera jaietan parte hartzeko aukera dute: marmitako eta paella txapelketak, erreka jaitsiera eta kontzertuak egongo dira, besteak beste.

**Pilar Rios alderdi sozialistako bozeramaileak txosnen errotazioa txapuza bat dela dio**

**Laminazioko orubea**

Txosnagunea Kurutziagan kokatzeak zeresana ematen jarraitzen du. Pilar Rios alderdi sozialistako bozeramaileak txosnen errotazioa txapuza bat dela esan du, eta horrela alkateak auzokideen kritikak ezkutatu gura dituela gaineratu du. Txosnagunearen kokapenerako "alderdi sozialistaren eta beste alderdi batzuen proposamena" jakitera eman du: Laminazioaren orubea, aurten barrakak jarri dituzten gunea. ∎ J.G.



Berbaro elkarteko kideak erreka jaitsieran parte hartzen.

## "Ez gara fidatzen"

Txosnak Kurutziagan jarriko dituztela-eta auzokideak joan zen barikuan batzartu ziren udal ordezkariekin. Kurutziagako bizilagunek *Anboto*ra bidalitako gutun batean euren haserrea adierazi zuten udalak ez zielako txosnagunearen kokapenaren inguruko informaziorik eman. Auzokideen berbetan batzar horretan aho zabalik geldituziren gobernu taldeko (EAJ) kideek txosnagunea Kurutziagan jarriko zela iazko irailetik erabakita zegoela esan zietenean: "Erabaki hori udalak hartu zuen txosnekin, baina auzokideok ez daukagu zeresanik?".

Euren kalean txosnak jartzen hasi direla ikusita, hainbat neurri adostu dituzte udalagaz. Badoa daukaten garajeen jabeei Landako gunean aparkatzeko txartela emango diete. Ate eta leihoak egurrez babestea ere adostu zuten. "Zeozer pasatzen bada udaletxeak ardura hartuko duela esan ziguten". Hala ere, auzokideak mesfidati agertu dira. "Konpromisoa ahozkoa denez, orain arte esan dizkiguten gezurrekin ez gara fidatzen. Beldurtuta gaude".

# Igerilekuko tabernan soldata barik daude azken hilabeteetan

## Behargin baten arabera, arduradunek soldatak ordaintzeko dirurik ez daukatela esan diete

Landakoko eta Tabirako igerilekuetako tabernak kudeatzen dituen enpresak ez ditu soldata guztiak ordaindu azken hilabeteetan. Hori kontatu du Imelda Martin beharginak. Zorrak ez ei dira berdinak kasu guztietan: langile bati soldata bakarra zor diote, eta beste bati bost. Azken egoera horretan dago Martin. Lau soldata eta azkeneko kitapena ez ditu jaso. Izan ere, domekan amaitu zitzaion kontratua eta, beste urtebeterako eskaintza egin dioten arren, ez du berritu. Zazpi behargin egon dira orain artean, lau lanaldi osoan eta hiru erdian. Enpresak murrizketa planteatu ei du: "Lanaldi osoan egon garenoi %60ra jaistea proposatu ziguten barikuan".

Enpresako arduradunek soldatak ordaintzeko dirurik ez daukatela esan ei diete. Baina, udan, Tabiran diru asko atera dutela azaldu du Martinek. "Egunero mila eurotik gora atera ditugu; zelan gaude horrela? Ez dakit non egongo den dirua."

**Udalari abisua**

Udalari ere eman gura izan diote egoeraren berri, eta bidali dituzte euren kexak. Izan ere, udalak esleitzen du zerbitzua. Martinek uste du udalak enpresa aldatu beharko lukeela, ostera ere esleipeneko lehiaketa abiatuta. ∎ M.O.

**Udan, Tabirako tabernan diru asko atera dutela azaldu du beharginak**

**Martinek uste du udalak enpresa aldatu beharko lukeela, lehiaketa abiatuta**

# Durangaldeko Behargintza enplegu agentzia lanetan

## Lanbide enplegu zerbitzuaren baimena jaso du eta lan merkatuko bitartekari jardun ahalko du

Durangaldeko Behargintza enplegu agentzia funtzioak betetzen ari da, horretarako Lanbide euskal enplegu zerbitzuaren baimena jasota, pasa den abuztutik.

Zerbitzu berriak enplegu bila edota lanpostuak eskaintzen dituztenen arteko bitartekari lanak egingo ditu. Enplegua eskaintzen dutenei lanpostu baten bila dabiltzan pertsonen ezaugarriak emango dizkiete. Guztiz doako zerbitzua izango da Durangaldeko Behargintzak egingo duena.

**Lanpostuak bilatzen laguntzeaz gain, egungo baliabide formatiboen eskaintza ere izango du**

Behargintzak lanpostuak bilatzen laguntzeaz gain, egungo baliabide formatiboen eskaintza ere zabalduko du. Helburu profesionala definitzeko laguntza eta curriculuma berrikusi edo hobetzen laguntzeko aukera emango du, baita eskualdean dauden baliabide askotarikoen gaineko informazioa zabaldu ere. ∎ A.E.

# 'Hitz egidazu' programa egingo dute, hirugarrenez

## Atzerritarrek ahozko euskara zein gaztelania hobetzeko laguntza-tresna izatea da helburua

Durangoko Udalak, Gurutze Gorriaren eta Helduen Hezkuntzarako Ikastetxearen laguntzaz *Hitz egidazu* boluntariotza linguistikoari buruzko programa jarri du martxan hirugarren aldiz.

Programak atzerritarrak gaztelaniaz edo euskaraz alfabetatu eta hizkuntza ikasteko prozesuetarako laguntza-tresna izan nahi du. Baita kulturartekotasuna bultzatzeko gunea ere. Ahozko euskara zein gaztelania hobetu nahi duten atzerritarrei laguntzeko prest dauden pertsona bana bilatzen ahaleginduko dira.

**Etorkinen harrera eta integrazio-prozesuak erraztu eta kultur arteko harreman-guneak sustatzeko asmoz**

Etorkinen harrera eta integrazio-prozesuak erraztu eta kultur arteko harreman-guneak sustatzeko asmoz, programa ekintza ludiko eta hezigarriez osatuko dute. Ekimenean parte hartzeko, udal web orrian dagoen inskripzio-orria bete behar da: *www.durango-udala.net*. ∎ A.E.

HAUTESKUNDEAK

# "Leialtasuna Euskal Herriari zor diogu, ez Raxoiri"

## EH Bilduk Durangoko merkatu plazan egin du ekitaldia




Durangoko merkatu plaza betearen aurrean egin zuen berba astelehenean Laura Mintegik, EH Bilduren lehendakarigaiak. Txalo zaparradagaz hartu zuten bertaratutako ehundaka lagunek, eta adi entzun zituzten bere esanak. Irakurtzeko *txuleta* barik, hurreko mezua bota zuen. Durangoko Azokan 40 urtez bizitakoa gogoan hartu, eta esan zuen aurten ere etorriko dela. "Editorea pozarren dago; nire liburuak Madrilen-eta saltzen direla dio. Baina gure liburuek ez, guk esandakoek pizten dute interesa". France Press hedabideko kazetari bat ere han zen, entzuleei galdezka.

EAJk aurreko egunetan esandakoari erreferentzia eginez, Mintegik esan zuen EH Bilduk ez duela etxea Espainiagaz konpartitu gura. "Leialtasuna Euskal Herriari zor diogu, ez Raxoiri". Burujabetza aldarrikatu zuen egoera politikoaren eta ekonomikoaren konponbide legez. Mintegiren ustez, independentzia lortzeko beharrezkoa izango da aurretik akordio zabal bat gauzatzea.

Dani Maeztu hautagai durangarrak justizia sozialean oinarritutako kudeaketa egingo dutela esan zuen. "Beste indar politikoek ez dute ezer egingo pribilejioak murrizteko". ∎ M.O.

# Jose Antonio Pastor eta Idoia Mendia andaluziarren jaian

## Durangoko Landako Gunean izan ziren domekan


Kepa Aginako

Zornotza eta Durangaldea bisitatu zituzten joan zen domekan Jose Antonio Pastor legebiltzarkideak eta Idoia Mendia Barne sailburuak. Durangaldeko alderdi sozialistako ordezkariekin batera, Zornotzan larrosak banatzen abiatu zuten goiza. Eguerdian Iurretako azokara joan ziren. Eguerdi aldera, Landako gunean antolatutako andaluziarren topaketetan parte hartu zuten. Euskadiko federazioetako hainbat alkaterekin (Barakaldoko Mikel Torres eta Portugaleteko Tontxu Rodrigezekin, besteak beste) eta Durangoko udal ordezkariekin bat egin zuten.

**Lopez Gernikan**

"Autogobernua eta deszentralizazio politikoa defendatuko dut, independentziaren eta birzentralismoaren aurrean", adierazi zuen Patxi Lopezek, egungo lehendakariak eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako PSE-EEren lehendakarigaiak, martitzenean, Gernikan. Lopezek azaldu zuenez, independentziaren aurka dago "birzentralizazioaren kontra bezainbeste", eta dioenez, erkidegoz osatutako sistema politikoak eragin du "saltorik handiena aurrerapenean eta herritarren eta lurraldeen arteko berdintasunean".

IURRETA INSTITUTUA
Goi-mailako Lanbide-Heziketako Berariazko Institutua
Olaburu, 19 • 48215 IURRETA (Bizkaia) • Tel. 94 466 88 00 • Faxa 94 620 28 28 • E-posta: ezarautua@hezkuntza.net • www.iurreta-institutua.net

Diruz lagungarriak
Lanerako Formakuntza Ikastaroak
Profesionaltasun Agiriak
2012-13 DEIALDIA

| | LANBIDE KODEA | IKASTAROAK | MAILA | DATAK | ORDUAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ADMINISTRATIBOA | | | |
| 1 | UF 0320 | TESTU- TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK | 3 | 2012/11/05 2012/11/26 | 30 |
| 2 | UF 0321 | KALKULU ORRIEN APLIKAZIO INFORMATIKOAK | 3 | 2012/11/27 2012/12/20 | 50 |
| 3 | UF 0336 | FINANTZA SISTEMEN ETA KALKULU PROZEDUREN ANALISIA. | 3 | 2013/01/14 2013/01/31 | 40 |
| 4 | UF 0515 | KONTABILITATEKO PLAN OROKORRA. | 2 | 2013/02/27 2013/04/25 | 90 |
| 5 | UF 0516 | KONTABILITATE APLIKAZIO INFORMATIKOAK | 2 | 2013/05/06 2013/05/20 | 30 |
| 6 | UF 0343 | SOLDATA ORDAINSARIAK, KOTIZAZIOAK ETA DIRU-SARRERAK | 3 | 2013/03/12 2013/05/17 | 90 |
| 7 | UF 0344 | GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK | 3 | 2013/05/21 2013/06/05 | 30 |
| | | AUTOMOZIOA | | | |
| 10 | | AIRE-GIROTZE SISTEMEN MANTENTUA. (KK). | 2 | 2013/03/01 2013/03/30 | 40 |
| 11 | | PRESTAKUNTZA KOMERTZIALA ETA BEZEROARENTZAKO ARRETA (KK). | 2 | 2013/02/01 2013/02/15 | 8 |
| 12 | | AUTOMOZIOKO TEKNOLOGI BERRIAK. (KK). | 2 | 2013/03/01 2013/03/30 | 9 |
| | | ARRETA SOZIO- SANITARIOA | | | |
| 13 | UF 0119 | MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEN EZAUGARRIAK ETA BEHARRAK | 2 | 2013/01/14 2013/02/07 | 70 |
| 14 | UF 0121 | MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEN GAITASUN FISIKO HOBEKUNTZA ETA LEHEN LAGUNTZA | 2 | 2012/11/05 2012/11/29 | 50 |
| 15 | UF 0130 | MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEN EGUNEROKO AKTIBITATEEN MANTENUA ETA HOBEKUNTZA INSTITUZIOETAN. | 2 | 2013/03/18 2013/04/25 | 50 |
| | | ELEKTRONIKA | | | |
| 16 | | ORDENAGAILUAREN HARDWAREA. (KK). | 3 | 2012/12/10 2012/12/19 | 20 |
| 17 | | AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK 1. MAILA. (KK). | 3 | 2013/02/18 2013/03/11 | 40 |

| | LANBIDE KODEA | IKASTAROAK | MAILA | DATAK | ORDUAK |
|---|---|---|---|---|---|
| 18 | | INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA OINARRIZKO AUTOMATISMOAK. (KK). | 2 | 2013/01/07 2013/01/28 | 40 |
| | | FABRIKAZIO MEKANIKOA | | | |
| 19 | UF 0882 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIORAKO CNC PROGRAMAREN OPTIMAZAZIOA ETA EGIAZTAPENA. | 2 | 2012/10/15 2012/11/27 | 70 |
| 20 | UF 0882 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIORAKO CNC PROGRAMAREN OPTIMAZAZIOA ETA EGIAZTAPENA. | 2 | 2012/11/28 2013/01/24 | 70 |
| 21 | UF 0877 | INGURUGIROAREN ETA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA TXIRBIL-HARROKETAREN BIDEZKO MEKANIZAZIOAN. | 2 | 2013/01/14 2013/01/29 | 30 |
| 22 | UF 0883 | TXIRBIL-HARROKETAREN BIDEZ, MEKANIZATUTAKO PRODUKTUAREN EGIAZTAPENA | 2 | 2013/05/20 2013/06/04 | 30 |
| 23 | UF 0876 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO PROZEDUREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK | 2 | 2012/10/15 2012/11/20 | 60 |
| 24 | UF 0991 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO PROZEDUREN KOSTU KALKULUA | 2 | 2012/11/21 2012/12/13 | 40 |
| 25 | UF 0878 | TRESNAK, EKIPOAK ETA MAKINEN PRESTAKETA. | 2 | 2013/01/07 2013/02/07 | 80 |
| 26 | UF 0881 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO PROZEDURAK | 2 | 2013/02/18 2013/03/21 | 80 |
| 27 | UF 0879 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO PIEZEN FABRIKAZIORAKO CNC PROGRAMEN SORKUNTZA | 2 | 2013/04/08 2013/05/14 | 80 |
| 28 | UF 0880 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO PROZESU LAGUNTZAILEEN FABRIKAZIOA (PNEUMATIKA). | 2 | 2013/03/01 2013/03/30 | 70 |
| | | INFORMATIKA | | | |
| 29 | UF 1877 | SARE-TELEMATIKOEN AZPIEGITUREN PROIEKTU-EZARPEN PLANIFIKAZIOA. | 1 | 2013/01/07 2013/01/31 | 50 |
| 30 | | WEB-ORRIAK. OINARRIKO MAILA. HTML ETA KASKADAKO ESTILO-ORRIAK. (KK). | 1 | 2013/03/06 2013/03/21 | 30 |
| 31 | | WEB-ORRIAK. MAILA AURRERATUA. WEB TOKIKO SORKUNTZA JOOMLAREKIN. (KK). | 1 | 2013/04/08 2013/04/23 | 30 |
| 32 | | IRUDIEN TRATAMENDU DIGITALA GIMPEKIN. (KK). | 1 | 2013/04/24 2013/05/09 | 30 |

*KK: Katalogotik Kanpo.

www.iurreta-institutua.net

ELORRIO

# Herritarren iritzia erabiliko du Bilduk aurrekontuak lantzeko

## Oposizioko koalizioak datozen asteetan prestatu gura ditu eztabaidagaiak




Idoia Buruaga (jarrita, erdian), Bilduren Elorrioko gainontzeko zinegotziekin batera, prentsaurrean.

Oposizioan egon arren, 2013rako aurrekontuen lanketari ekin dio Bilduk. Eztabaidarako proposamenak prest eduki gura dituzte, eta horiek osatzeko herritarren iritzia erabiliko dute. Azaldu dutenez, partaidetza prozesu bat ipiniko dute martxan datozen asteetan, eta hori amaituta eztabaidatuko dute gobernu taldeagaz. Idoia Buruagak egin du berba Bilduren zinegotzien izenean: "Prozesua amaitu arte ez gara inorekin jarriko". Hortik aurrera, gobernu taldeagaz akordioetara ailegatzeko prest daudela baieztatu du.

**Bilduren ordezkariak esan du aurrekontuena lehenengo pausua bakarrik dela**

Ez da ohikoa oposizioko talde batek aurrekontuak lantzeko iniziatiba hartzea. Era parte-hartzailean egitea ere ez. Buruagak ez du uste EAJk era horretan landuko dituenik. "Oposiziotik izan arren, indartsu eta ilusioz gaude. Honetan sinesten dugu". Prozesuak eragina izan ahal duela ere uste du Buruagak: "Honek datorren urtera begira gobernu taldeak horrelako ekimen bat egitea bultzatzen badu, gu hor egongo gara laguntzeko. Poztuko gara".

**Buruaga: "Demokrazia, lau urterik behin boto bat ematea baino zeozer gehiago da"**

### Moda bat baino gehiago

Bilduren ordezkariak esan du aurrekontuena lehenengo pausua bakarrik dela, aurrerantzean udalgintzan eredu parte-hartzailea sustatuko dutela. *Parte-hartzea* modan dagoen berba dela uste du, baina eurentzako moda bat baino gehiago ei da. "Demokrazia, lau urterik behin boto bat ematea baino zeozer gehiago da".

Prozesura herritar guztiak gonbidatu dituzte. "Badakigu Elorrio guztion artean eraiki ahal dela, bazterketa sozial zein politikoen gainetik". Zazpi batzar egingo dituzte eta laster emango dute deialdien berri. Inkestak ere banatuko dituzte kalean. Oinarri horregaz, lehentasunezko proiektuak definituko dituzte. ■ M. Onaindia

MALLABIA

# WAT enpresak 28 langile kaleratu gura dituela kritikatu du LABek

## Langileek mobilizazioei ekin diete; kontzentrazioak egiten ari dira egunero

Mallabiko WAT enpresako langileek hamabost egun daramatzate enpresaren aurrean elkarretaratzeak antolatzen. LAB sindikatuak jakitera eman duenez, uztailean enpresak kontsurtsoa eskatu zuen "alde sozialarekin inolako akordiotara iristeko asmo barik". Sindikatuaren berbetan, Irango bezero bat galdu zutela azaldu zuen enpresak, eta horrek beraien etorkizuna zalantzan jartzen zuela.




Ermuan antolatutako manifestazioa, joan zen zapatuan.

Enpresa komiteak (UGT, CCOO eta LAB) proposamen asko egin arren, enpresaren aldetik ezezko erantzuna jaso dutela gaineratu du LABek. Lehiaketa egoeran egon eta enpresak 28 langilerentzako kaleratze EREa eskatuko duen "mehatxua" egin duela diote. Gaur egun, WAT enpresan guztira 64 langilek dihardute.

Joan zen zapatuan manifestazioa antolatu zuten Ermuan enpresa komiteak deituta, eta martitzenean auto-karabanan irten zuten enpresaren aurretik. Gainera, egunero elkarretaratzeak antolatzen ari dira enpresa aurrean. "Enpresak bere jarrera aldatu arte", mobilizazioekin jarraituko dutela dio LABek. ■ J.G.

IZURTZA

# Abiadura gutxitzeko batzar eskaerari ez diote erantzun

## Udalak Aldundiagaz eta Jaurlaritzagaz batzarra egin gura du autoen larregizko abiadura dela-eta

Udala Eusko Jaurlaritzagaz batu zen ekainean, autoak herrigunetik pasatzean lar arin ibiltzen zirela-eta, arazoari konponbidea bilatzeko. Radarrak ipintzeko aukera baztertu zuen Jaurlaritzak, baina Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera, hiru alderdiko batzarra proposatu zuen, arazoari irtenbide bateratua eman guran.

Harrezkero, udala behin baino gehiagotan saiatu da Aldundiagaz batzar hori lotzen, baina oraingoz ez dute lortu. Irailaren 5ean telefono bidez ipini ziren hartuemanetan Errepide sailagaz. Hamar egunez itxaron eta Aldundiak ez duenez datarik zehaztu, irailaren 14an fax bidez berriro egin zuten eskaera. Ordutik ia hilabete joan da eta ez dute erantzunik jaso. Batzarra lotzeko ahaleginetan jarraituko dutela adierazi dute udal ordezkariek. ■ J.D.

ZALDIBAR

# Haurreskolako eraikin berriaren proiektua, aurrera

## Plenoan hartutako erabakien artean, ikastetxe osoan biomasa berogailua ipintzea onartu dute

Haurreskolako eraikin berriaren proiektuaren hasierako onarpena egin zuten joan zen barikuko udalbatzarrean. Herri ikastetxeko berogailua berrizteko proiektua ere onartu zuten Bilduren udal gobernuko zinegotzien bozkekin: biomasa berogailua ipini gura dute eskola guztian.

Nerea Garitagoitia bozeroaleak esan zuenez, haurreskola proiektu horren "kontra" dago EAJ: "Uste dugu Hezkuntza sailaren ardura dela proiektu hori garatzea, eta gauzak dauden moduan udalak bi milioi euro gastatzea ez da onargarria".

Arantza Baigorri alkateak dioenez (Bildu), "EAJren udal gobernuak bota zuen bi urteko umeak hartzen zituen eraikina, eta eurek sartu zituzten umeak aurre fabrikaturiko modulo batean". Aurrefabrikatutako eraikinetan egotea EAJk "epe motzerako soluzio bezala" aurkeztu zuela dio Bilduk, "eta dagoeneko sei urte" daroatzatela. ■ I.E.

ABADIÑO

# Perretxikoen argazki lehia antolatu du Geredixak

## Mikologia elkarteak loreei egindako argazki onena ere sarituko du, urriaren 21eko ekitaldian

Urriaren 16 arteko epea zabaldu du Geredixa mikologia elkarteak parte hartu gura duten argazkizaleek euren argazkiak lehiaketara aurkeztu ditzaten. *Euskal Herriko perretxikoak* gaia ipini dute, baina loreei egindako argazki onenaren sari berezia ere banatuko dute, bestalde.

**Hiru sari emango dituzte, eta erakusketa zabalduko dute aurkezturiko argazkiekin**

Traña-Matienako Errota kultur etxean aurkeztu ditzakete argazki eta perretxikozaleek euren argazkiak; gehienez ere, argazki bi parte hartzaile bakoitzak.

Urriaren 21ean, Errota kultur etxean egingo dute sari banaketa. Hiru sari emango dituzte: 300, 200 eta 150 euroko sariak, eta erakusketa zabalduko dute aurkezturiko argazkiekin. ■ I.E.

# Gremioen gida

## DEKORAZIOA

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com

## ELEKTRONIKA

**URBASA** ELEKTRONIKA TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Televés Instalatzaile Ofiziala

Panasonic

## AROTZERIA

**EGUIA s.l.**
AROZTEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
**Mug.: 669 655 169**
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaeguia.com

## ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.sl@terra.es

**urtiaga**
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

**Mallabiena**
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta• Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

**Ubide**
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

## GARBIKETAK

**AZKARGI**
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goieta, 46 - 2.esk - Elorrio - 615 79 12 15

## ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta

**PUJANA**
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

ARGIZTATZE TEKNIKAK
**MARKIEGI**

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa:94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

## LORAZAINTZA

**Jardines Patxi Lorategiak**

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

DURANGALDEA

# Mobilizazioak hasi dituzte San Eloy eta Iketz enpresetan

LABek dioenez, gestio erabakiek eragin dute bi enpresen egoera larria



Elorrioko plazan langileek egin zuten elkarretaratzea, joan zen asteburuan. LAB

San Eloy (Elorrio) eta Iketz (Abadiño) enpresetan mobilizazioak hasi dituzte euron lanpostuen eta "konponbide duin" baten defentsan. LAB sindikatuak salatu duenez, konkurtso-prozedura eskatu dute enpresa bientzako, "bazkideek sortutako egoera jasangaitza babesteko". San Eloy eta Iketz enpresako 230 lanpostuak bermatzea eskatu du LABek.

Enpresa biak "finantza egoera oso larrian" zeudenaren zurrumurrua ekainean zabaldu zuten bazkideek, LABen berbetan, eta harrez gero hartutako gestio erabakien ondorioz, "egoerak nabarmen okerrera besterik ez du egin". Enpresa bien zorra handitu besterik ez dutela egin diote, "hornitzaileei ordaintzeari utziz, eta egoera finantzieroa okertuz. Ondorioz, atzera ezinezko pausoak emanez".

**San Eloy eta Iketz-eko 230 lanpostuak bermatzea eskatu du LAB sindikatuak**

**Durangoko sanfaustoetarako ere iragarri dituzte protesta ekitaldiak**

LABek salatu du bazkideek eta gerentziak "sortutako miseriak" langileek "irenstea" gura dutela, eta "urteetan sortutako aberastasunarekin ihes egin". "Euren erantzukizuna da konponbide erreal eta duin bat eskaintzea". Berba egiteko prest agertu da LAB, "baina ez musu-truk eta beraien miseriak ordaintzeko prest", eta protestak eratu dituzte. Elorrion elkarretaratzea egin zuten joan zen asteburuan. Durangoko sanfaustoetarako ere iragarri dituzte protesta ekitaldiak. ∎ A. Basauri

# Izarren Distira martxan, gazteei euskarazko espazioak emateko

Zarrabeitiaren ustez artista gazteen lehiaketa urterik urte sendotzen doa

Hirugarren edizioa beteko du aurten Izarren Distira artista lehiaketak. Amankomunazgoak eratutako ekimena Oskar Zarrabeitia presidenteak aurkeztu du. "Gaitza izaten da gazteek dauzkaten beharrei erantzuteko espazioak sortzea. Horiek, gainera, erdarazkoak izaten dira gehienetan". Horregatik, euskarazko espazio berriak eskaini gura dizkie. Kultur Kabia elkartea ere badabil antolaketan.

**Aurten, kazetaritza tailerra eta entsegu maratoia gehitu dituzte**

**Irabazleak Port Aventurara joango dira, baina guztiek jasoko dute oparia**

Zarrabeitiaren ustez ekimena sendotzen doa urterik urte. Aurten, kazetaritza tailerra eta entsegu maratoia gehitu dituzte. Urriaren 20an egingo dute kazetari lana Behargintzan eta maratoia Zaldibarren izango da 27an. Lehiaketarako kastingak urriaren 29an hasiko dira, eta finalistek azaroaren 10ean Plateruenean burutuko den galan parte hartuko dute. Irabazleak Port Aventurara joango dira, baina guztiek jasoko dute oparia. Poltsak eta aterkiak erregalatuko dituzte. ∎ M.Onaindia


Izarren Distira ekimeneko antolatzaileak, Plateruenean.

IURRETA

# Jazarpen sindikala salatu du LABek Smurfit Nervión-en

Egoera "jasangaitza" bihurtu eta batez ere aldi bateko langileei eragiten diela dio sindikatuak

Smurfit Nervión enpresan "jazarpena" salatu du LABek. Hauteskunde sindikaletatik, egoera "jasangaitza" bihurtu dela diote eta gehien ebentualek sufritzen dutela: "Afiliazioaren edo LABeko jarraitzaile denaren susmoa hartuz gero, kontratua ez diote berresten edo kaleratu egiten dute".

**Irailaren 26an ere greba eskubidea urratu zela uste du sindikatu abertzaleak**

Lehenengo instantziako epaitegiak, aurtengo kaleratze bat bidegabetzat jo du. Baina, enpresak epaia errekurritu eta behin betiko erantzunaren zain daude.

Bestalde, informaziorik jasotzen ez dutelako salaketa aurkeztu zuen LABek Lan Ikuskaritzan, otsailean. Aurretik zuzendaritzagaz batzartzea ere saiatu ziren, ezer lortu gabe.

Komitean LAB eta ELA daude eta, LABen esanetan, Lan Ikuskaritzak biei informazioa ematekо gomendioa "alboratu" ez ezik, enpresak aurrerago jo eta aurreakordioa sinatu zuen ELAgaz. LABek ez zuen sinatu "ituna blindatu eta lan erreforma ez aplikatzeko kopromisoa jaso ez zelako". Gainera, enpresak negoziazio kolektiboaren prozedimendua urratu duela dio LABek, batzorde negoziatzaileko alde bat baztertu dutelako, LAB kasu honetan.

Irailaren 26an ere greba eskubidea urratu zela uste du sindikatu abertzaleak, eta beste salaketa bat aurkeztu du LABek Lan Ikuskaritzan: "Jardun normala aztoratu gabe enpresa irekita eduki gura izan dute". ∎ A.B.






**BERRIZ**

# Auzo-taxi zerbitzua, herrigunea eta auzoak lotzeko prest

## Zengotitabengoa kalean egongo da taxien geltokia, eta astelehenean hasiko da zerbitzua


Isasi eta Larrinaga taxilariak, Isoird alkatearen alboetara kokatuta.

Auzo-taxia erreala izango da astelehenean. Bada urtebete udalak egitasmoaren berri eman zuela, 2012rako aurrekontuetan zehaztu zuenean. Baina, lehenik eta behin taxi lizentziak banatu zituen udalak, herrian ez zegoen-eta taxirik. Orain, proiektuaren diseinua amaituta, zerbitzua martxan ipiniko dute. Astelehenetik aurrera, auzoetako bizilagunei herrian mugitzea erraztuko zaie. Auzotik auzora zein herrigunera joatea posible izango dute euro biren truke. Aurretik, erabiltzaile-txartela eskatu beharko dute udaletxean. Gero, bidaiatzea gura dutenean, 620 022 800 telefono zenbakira deituko dute. Astegunetan 07:30etik 21:00etara eta zapatuetan 09:00etatik 14:00etara izango da erabilgarri. Herrigunean, Zengotitabengoa kaleko 2. zenbakian egongo da taxi geltokia.

**Auzotik auzora zein herrigunera joatea posible izango dute euro biren truke**

Taxi zerbitzu normalerako eta auzo-taxirako, telefonoa eta geltokia berdinak dira. Udalak Javier Larrinaga eta Javier Isasi herritarrei adjudikatu dizkie lizentziak, eta eurek eskainiko dituzte zerbitzu biak. Beraz, enplegua sortu dute eta Orlan Isoird alkateak garrantzia eman dio: "Hori ere bazen helburua". ∎ M. Onaindia

# Produktu ekologikoak banatzeko kontsumo taldeak sortu dituzte

## Orain arte 30 familia baino gehiago interesatu dira; herriko baserritarrak inplikatu gura dituzte

Inguruko baserritarrei sasoian sasoiko produktu agroekologikoak erosteko kontsumo taldeak sortzen hasi dira Berrizen. Oka kultura elkartea dabil ekimena bultzatzen eta laster hiru hiletako proba egingo dute.

Kontsumitzaileei begirako batzar bat egin dute dagoeneko, eta bertan 30-40 familia batu direla azaldu du Xabi Zalduak, Oka kultura elkarteko kideak: "Asteon taula bat pasatuko diegu familiei, zer eta zenbat kopurutan kontsumituko luketen ipintzeko". Horrela, baserritarrek saldu behar dutena planifikatu ahalko dute. Lehenengo, Nekasare ekoizleen elkartearen bidez egingo da banaketa. Zalduak adierazi duenez, asmoa laster Berrizko baserritarrekin batzartu eta kontsumo taldean parte hartzeko deia egitea da.

**Astero sasoian sasoiko barazki otzara banatuko dute, hiru kilokoa, 10 euroren truke**

Produktuen artean, astero sasoian sasoiko barazki otzara banatuko dute, hiru kilokoa, 10 euroren truke. Horrez gainera, esnekiak, oilaskoa, arraultzak, txerri okela... erosi ahalko dira. Interesa daukaten herritarrek helbide honetara idatzi ahal dute: *okakontsumotaldea@gmail.com*. ∎ A. U.

# Asteburuetarako Kalabazan ludoteka sortu du Pagotxak

## Pasa den zapatuan egin zuten aurkezpen jaia; bi asterik behin egongo da ludoteka kultur etxean

Kalabazan izenagaz, hiru eta hamaika urte bitarteko umeentzako ludoteka sortu du Pagotxa aisialdi elkarteak. *Hala bazan eta ez bazan, zapatuetan Kalabazan* lemagaz egin zuten aurkezpen jaia pasa den zapatuan, eta hemendik aurrera bi zapaturik behin kultur etxean egingo dute ludoteka.

Zapatuko jaian jendetza batu zen, eta 50 ume inguruk honezkero izena eman dute ludotekan. Pagotxa elkarteak umeen euskararen erabilera bultzatzeko eta aisialdirako aukera emateko asmoz sortu du ludoteka. Hainbat lokaletan galdezka ibili eta gero kultur etxeko hirugarren solairuan egongo dira ludotekako bi taldeak; batean hiru eta sei urte artekoak, eta bestean zazpi eta hamaika urte artekoak.

**Zapatuko jaian jendetza batu zen eta 50 ume inguruk izena eman dute honezkero**

### Bilduren dietak

Ludoteka eratzeko diru-laguntza Bilduko zinegotzien dietetatik etorriko da. Dietak ez dituzte kobratzen, diru horretako zati bat herriko proiektuetara bideratzea erabaki dute, eta Pagotxaren egitasmoagaz bat egin dute. ∎ A.U.

ARETXABALETA Lanbide Eskola

2012/2013 IKASTURTEA
IKASTAROAK DOHAINIK
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)
KATALOGO MODULAR *BERRIA*

| ZIURTAGIRI PROFESIONALAK | PRESTAKUNTZA MODULOAK | PRESTAKUNTZA UNITATEAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| (FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA | MF0089_2 Txirbil-harroketa bidezko prozesua | UF0876 Zehaztapen teknikoak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 60 |
| | | UF0991 Prozesuen koste balioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 40 |
| | MF0090_2 Txirbil-harroketa bidez mekanizatzeko makinak eta sistemak prestatzea | UF0880 Fabrikazioen prozesu osagarriak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 70 |
| | MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa | UF0881 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioen prozedurak | 80 |
| | | UF0883 Mekanizatutako txirbil-harroketa bidezko produktuen egiaztapena | 30 |
| (FMEC0110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG | MF0099_2 Arku elektrikoarekin elektrodo estali bidezko soldadurak egitea | UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran | 60 |
| | | UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa | 70 |
| | | UF1623 Rutilozko elektrodo estaliekin karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea | 90 |
| | | UF1624 Basiko elektrodo estaliekin karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea | 90 |
| | | UF1625 Elektrodo estaliekin karbono altzairuak, altzairu herdoilgaitzak eta beste material batzuk egiturak soldatzea | 90 |
| | MF0100_2 Gas babeslepeko arkuarekin elektrodo ez-kontsumigarriaren bidezko soldadurak (TIG) egitea | UF1626 karbono altzairuen TIG soldaketa | 90 |
| (FMEC0210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG | MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiekzio termikoak egitea | UF1672 Oxigas soldadura | 70 |
| (SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA | MF0249_2 Etxean egiten den higienea eta osasun arreta | UF0119 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen ezaugarri eta higiene-osasun beharrak | 70 |
| | | UF0120 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen elikagaien administrazioa eta tratamendua | 50 |
| | | UF0121 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen ahalmen fisikoak hobetzea eta lehen sorospenak | 50 |
| (SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN DAUDEN MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA | MF1017_2 Erakundeetan, higiene -elikaduraren arretan esku hartzea. | Erakundeetan, higiene -elikaduraren arretan esku hartzea | 70 |

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE) — DOAN

| | | |
|---|---|---|
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEC0210 | Soldadura oxigas eta soldadura MIG/MAG | 430 |
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEH0109 | Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa | 280 |
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: TMVL0109 | Mantenimendu eragiketa osagarriak ibilgailu elektromekanikoetan | 270 |
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: SSCS0208 | Erakunde sozialetan dauden menpeko pertsonen arreta soziosanitarioa | 480 |

KATALOGO MODULARRETIK KANPO — DOAN

| | |
|---|---|
| Altueran lan egitea | 20 |
| Garabietan lan egitea | 20 |
| Eskorgan lan egitea | 20 |
| Soldadoreen homologazioa | 60 |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HOBETUZ
Europako Gizarte Funtsa
lanbidez heziketa formación profesional

ETXEBARRI AUZOA Z/G 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

## Durangaldean labur

### Epaitegiek arrazoia eman diete ONAko aurrejubilatuei

Bilboko auzitegiak ONA enpresako aurrejubilatuen aldeko epaia eman du. Erabakiak dioenez, enpresak eta aseguru etxeak aurrejubilatuei ordaintzeko betebeharra dute. Uztaila bitarteko kuota guztiak ordaindu behar dizkietela dio sententziak. 2011ko urtarriletik, zortzi aurrejubilatuak kobratu barik daude, enpresak kontratatu zuen Belgikako Apra Leven aseguru-etxeak likidazio egoeran dagoelako.

### 950 euro topatu eta entregatu egin ditu

Herritar batek 950 euro eta dokumentazioa zeuzkan kartera topatu zuen urriaren 6an, eta Udaltzaingoaren bulegoan entregatu zuen. Jabeari eman ostean, honek diru-zorroa aurkitu zuena saritu gura izan zuen. Ekintza zibikoaren egileak, ordea, ez zuen saririk nahi, berak egin beharrekoa baino ez zuela egin esan zuen. Aitziber Irigoras alkateak ekintza goraipatu du.

### 94 ikasle aurten, Lanbide Eskolan

26. promozioa martxan dago Durangaldeko Lanbide Eskolan. 96 ikaslek hasi dute ikasturtea, eta horietatik 52 aurtengo ikasturterako matrikulatu berriak dira. Hainbat espezialitate landuko dituzte: sukaldea, zurezko arotzeria, iturgintza, pintura, lorezaintza eta instalazio elektrikoak.

### Jaio eta Bikandiren abelburuak sarituta

Rufino Jaio eta Jon Koldo Bikandi iurretarren abelburuak saritu dituzte Gernika-Lumoko Urriko Lehenengo Asteleheneko txapelketan. Irene Pardo nekazaritza diputatuak parte hartu zuen XXVII. Euskal Herriko Pirinear Arrazako Ganadu Txapelketako sari banaketan.

**OTXANDIO**

# Urria amaitu aurretik eraitsiko dute zine zaharraren eraikina

Sortuko den espazio berrian anbulategi berria eta nagusiei zuzendutako bizilekuak eraiki gura dituzte

Zine zaharra legez ezagutzen den eraikina urria bukatu baino arinago botako dute. Egunotan eraikin horretan zegoen uralita guztia batzeaz eta birziklatzeaz arduratzen den enpresak bere lana amaitu du eta egun hauetan Otxandioko erdiguneko eraikin hori botatzen hasi dira. Eraisketa proiekturako 3.988 euro jaso dituzte Eusko Jaurlaritzatik.

Etorkizunean, eraikinaren beheko solairuan osasun etxe berria eraikitzeko asmoa dute. Anbulategia egiteko Osasun sailak eman beharreko diru laguntzak atzeratu egin dira. Apirilean jakinarazi zien Osasun sailak aurten ez dutela proiektu horretarako finantziazio biderik lortzerik izan. Gaur egungo anbulategian baino espazio handiagoa egongo da eraikin berrian. Horregatik, orain daudenak baino zerbitzu gehiago eduki ahalko ditu. Osasun sailaren datozen urteetako baliabideen baitan egongo da zerbitzu berri horiek eskaintzea.

**Hausnarketa**

Gainontzeko pisuetan, aldiz, nagusiei zuzendutako etxebizitzak eraikitzea aztertzen dabiltza. Datorren urtean hausnarketa prozesu bat abiatuko dute arlo horretan dagoen beharrizanari konponbiderik egokiena zelan eman pentsatzeko. ■ J. Derteano

**Osasun sailak eman beharreko diru laguntzak atzeratu egin dira aurten**



Zine zaharra izenagaz ezagutzen den eraikina.

**ATXONDO**

## Auzo batzarren bidez premiak bertatik bertara jakingo dituzte

Herritarren beharrizanak bertatik bertara ezagutzeko, udalak bost auzo batzar egingo ditu azaroan. Arrazolan eta Axpen bana egingo dituzte eta Apatan hiru, deialdiak zonaldeka banatuta.

Auzotarren premiak eta kezkak lehenengo pertsonan jasotzeaz gainera, udalaren aurrekontuak zelan osatzen diren azaltzeko ere erabiliko dituzte batzarrak: zeintzuk diren sarrerak, zeintzuk gastu finkoak... Udalak inbertsioetarako zelako tartea duen azalduko dute. Horrela, aurtengo aurrekontuak prozesu parte-hartzailearen bidez osatu gura dituzte.

Horrez gainera, Amankomunazgoak hiri hondakinen ontziak birkokatzeko egindako proposamena ere azalduko dute. Ostean, beste batzar bitan, azaroaren 27an Arrazolan eta 28an Axpen, xehetasun guztiak emango dituzte Amankomunazgoko teknikariekin batera. ■ J.D.

**MAÑARIA**

# Zinegotzi kargua utzi du Igone Ikobaltzeta jeltzaleak

Aurreko legealdian kultura zinegotzia izan zen; Eli Vegak hartu du zinegotzi aulkia bere ordez

EAJ udal taldeko Igone Ikobaltzetak zinegotzi kargua uzteko erabakia hartu du. "Azken hilabete hauetan karguak eskatzen duen dedikazioa ezin izan diot eskaini. Beraz, zuzenena nire postua hurrengoari uztea dela erabaki dut". Eli Vegak hartu du aulkia bere ordez. "Seguru nago bere eginbeharra ondo beteko duela".

Ikobaltzetak bost urte egin ditu udalean eta aurreko legealdian kultura zinegotzi izan zen. "Oso gustura egon naiz, bai nire alderdikoekin bai bestekoekin". Eskerrak eman gura izan dizkie urte hauetan lagundu diotenei. "Batez ere hasieran asko lagundu ninduten. Hori barik, egin beharreko bidea askoz gaitzagoa izango zen". Herritarrak ere eskertu ditu. "Mañaria bizirik dago, eta horrela irauteko gutako bakoitzak arnasa eman behar diogu". ■ M.O.

**GARAI**

## Sukaldaritza ikastaroan inskribatu ahal da dagoeneko

Trumoitte kultur elkarteak urtero antolatzen duen sukaldaritza ikastaroa azaroan izango da aurten. Azaldu dutenez, dagoeneko eman ahal da izena, eta horretarako azken eguna azaroaren 7a izango da. Telefono zenbaki honetara deitu behar dute interesdunek: 610 948 389. Garaitarrek 30 euro ordaindu beharko dute parte hartzeko; gainontzekoek 45.

Ikastaroa azaroaren 19tik 22ra eta 26tik 29ra burutuko dute. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara elkartuko dira Otea-Loran elkartean, eta Juantxu Larruzea sukaldaria izango da irakasle. Antolatzaileek esan dute partaideen nahien arabera erabakiko dutela zer plater egin. ■ M.O.

Laguntzaileak:
BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du
ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org
2012ko urriaren 11
10. urtea - 475 zk.

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.
**Erredakzio burua:** Joseba Derteano.
**Administrazio burua:** Itziar Belar.
**Administrazioa:** Miren Abasolo.
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Jone Alberdi.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarrieta.
**Zuzentzailea:** Ekaitz Goienetxea.
**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# GRUPO ARRASATE

TIEN 21

bestebat
Sukalde Altzariak



Intxaurrondo, 12 behea - Durango
Tel.: 94 681 34 85



Perulanda, 3 behea - Abadiño
Tel.: 630 341 384

eskaintza berezia

## FAUSTE GOIENAKO ETXEBIZITZENTZAKO



POLILAMINATUTAKO ALTZARIDUN SUKALDEA ........................ 2350 €

2. TALDEKO SYLESTONE ENTZIMERA ........................ 1150 €

3. TALDEKO SYLESTONE ENTZIMERA ........................ 1175 €

### BOSCH

Combi no-frost inox 200x60 .................. 690 €
Garbigailu integragarria 6 kg 1200 rpm . 630 €
Ontzi-garbigailu integragarria 60 .......... 450 €
Indukzioa 3f alakatua 60 ...................... 399 €
Labe pirolitikoa inox 60 ......................... 415 €
Kanpai apaingarria 90 ........................... 320 €
Mikrouhin labea inox ............................. 225 €

### FAGOR

Combi no-frost inox 200x60 .................. 599 €
Garbigailu integragarria 6 kg 1200 rpm . 525 €
Ontzi-garbigailu integragarria 60 .......... 410 €
Indukzioa 3f alakatua 60 ...................... 350 €
Labe pirolitikoa inox 60 ......................... 410 €
Kanpai apaingarria 90 ........................... 350 €
Mikrouhin labea inox ............................. 185 €

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak.** MCCko kooperatibistentzako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.



ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA JASOKO DA
MERKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA
GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU
+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

BERBAZ>

# "Ikaskideak indarkeria bako guneak sortzeko konplize bihurtu behar ditugu"

Gatazkak modu baikorrean lantzeko pistak eman ditu Paco Cascón irakasleak Durangaldean emandako hitzaldietan

**Ia atsedenik hartu barik, berbaldirik berbaldi ibili da asteon Paco Cascón irakaslea. *Gatazkan eta gatazkarako hezten* bere proiektua azaldu die Durangaldeko hainbat irakasle eta gurasori. Irakasle kataluniarra Zelaietako eskolako arduradunen bidez etorri da eskolara bertara eta Berritzegunera.**

***Gatazkekin bizitzen ikasteko beharrizanaz egin duzu berba hitzaldietan.***
Gatazkak ez dira gauza txar bat. Askorentzako arraroa izaten da hori entzutea, baina *Gatazkan eta gatazkarako hezten* proiektuaren oinarria hori da; gatazkak gizakiongan berezkoak dira, pertsona batzuk elkartzen garenean gatazkak sortzen dira. Saihestu genezakeena, eta hain berezkoa ez dena da gatazkek eragiten duten indarkeria. Ikasi behar dugu gatazkak onartzen, aztertzen eta modu baikorrean aurre egiten. Modu horretan bideratu ezean, indarkeria bihurtzen dira. Askotan ukatu egiten ditugu, ez ditugu gatazkak ikusi gura, eta ez diegu aurre egiten; orduan indarkeria sortzen da. Arlo guztietan gertatzen da hori, eta eskolan ere bai. Umeak bata besteari izenez baino mespretxuzko ezizenez berba egitean, adibidez. Horretaz konturatzen ez bazara, denboragaz indarkeria eta abusu bihurtu ahal da.

"Gatazkak onartzen eta modu baikorrean aurre egiten ikasi behar dugu"

***Gatazkak detektatzea gaitza da orduan?***
Gatazka gauza txarra dela pentsatzea da lehenengo oztopoa. Horrela ikusita saihestu egin gurako dugu, eta ez gara egongo gatazkara zabalik, gatazka gainditzeko jarrera egokiagaz. Gatazka indarkeriazko ekintza bakanak direla pentsatzen badugu, ezingo dugu aztertu, gatazkaren eztanda biolentoari bakarrik erantzungo diogulako. Ume batek mundu guztia jotzen badu, zer egingo dugu, jotzen duen bakoitzean erantzun? Horrela ez dugu arazoa konponduko. Jotzea gatazkaren adierazpena dela konturatu behar gara. Zer dago atzean? Auteostimu arazo bat izan dezake, besteekin harremanetan kolpeka ibiltzeko. Argi eduki behar dugu gatazka prozesu bat dela, eta prozesu horren hasieran dauden arrazoiak bilatu behar ditugula.

***Gatazken ondorioak lantzen dira orduan, arrazoietara jo beharrean?***
Sintometara jotzen da. Gatazka bat lantzeko ezin da eztanda egin arte itxaron, orduantxe da momenturik txarrena. Ondorio batzuk jada konponezinak izan daitezke, ez da behar beste denbora eta lasaitasun egoten, komunikazio bideak apurtu diren momentua da... Ez dezagun itxaron. Ikasturtearen lehenengo egunetik lanean hasi behar dugu, taldea sortu eta kohesio giroa lantzeko, taldetik kanpo inor sentitu ez dadin. Landu beharko ditugu komunikazioa, afektua, elkar ezagutzea, harreman kooperatiboak, elkarrizketak, entzuten ikastea... Hori landuta, giro lasai eta atseginean hobeto ikasten da eta indarkeria kasuak ematea gaitzagoa da. Taldea batuta ez dagoenean, errazagoa da erasoak egotea. Ez da horretarako espaziorik utzi behar.



"Ume batek mundu guztia jotzen badu, zer egin behar dugu, jotzen duen bakoitzean erantzun? Horrela ez dugu arazoa konponduko"

***Horrelako gatazkak sortzen direnean, erasotzaileagaz eta erasotuagaz lan egin ohi da.***
Bai, eta hori egin behar da, baina gela guztiagaz ere lan egin beharko litzateke. Ikasleek irakasleak baino arinago jakiten dute zer gertatzen ari den, eta isilik egoten dira. Konplize bihurtzen dira, eta konplize izan daitezke baita indarkeria bako giroa sortzeko ere. Taldea batuta badago, bakarrik inor ez geratzeko lan egingo du. Horretarako ikasturteko lehen egunetan taldea sortzen ibiltzea garrantzitsua da.

## Paco Cascón •

- Irakaslea eta gatazken konponketan aditua
- Bartzelonakoa da

***Zer tresna proposatzen dituzu gatazkak gainditzeko?***
Hainbat daude: negoziazio mahaiak, bitartekari taldeak... Negoziazio mahaietan aulki bi jartzen dira parez pare; batean belarri bat dago eta bestean aho bat. Umeak jesartzen dira, eta belarriaren lekuan dagoenak entzun egiten du, eta besteak kontatu. Gero lekuz aldatzen dira. Hori hiru urterekin egiten dute, eta entzuten eta sentimenduak adierazten ikasten dute. Negoziatzen ikasten dute.

***Helduek ere landu beharreko gaiak dira.***
Umeentzako proposatzen dugu hori, baina bai, nagusiok hori landu egin behar dugu. Irakasleok ere gatazkak gainditzea eta talde kohesioa lantzea behar dugu. Familiekin egitea ere komenigarria izango litzateke; askotan ahaztu egiten zaigu barku berean gaudela. Ezin gara bata bestea kritikatzen etengabe ibili. Guraso bati irakasleak egiten duena ez bazaio gustatzen, ezin du irakaslea desprestigiatu. Bat ez datorrela esateko eskubide osoa dauka, batzar bat deitu, eta berba egin irakasleagaz.

***Lehenago pentsaezina zen gurasoek irakasleen kontra egitea.***
Lehen irakasleek umeei mehatxu egiten zieten; "zure gurasoei deituko diet", eta txarto iruditzen zait. Orain umeak dira mehatxu hori egiten dutenak. Eta gurasoak galdetzera barik kontuak eskatzera etortzen dira. Gurasoek ezin dute umearen aurrean irakaslearen autoritatea zalantzan ipini, konturatu behar dira irakasle horrengan konfidantza badute umearen ardura edukitzeko, umeak ere konfidantza izatea eragin behar dutela.

***Negoziazioa eta bitartekaritza aipatu dituzu.***
Bitartekaritza ez da zertan erabili. Hirugarren pertsona batengana gu gure kabuz egiteko gai ez garenean joko dugu, baina hezkuntzan autonomian sinetsi behar dugu, eta umeei tresnak eman behar zaizkie gatazkak gainditzeko gai izateko, eta ez direnean gai sentitzen hirugarren pertsona bati laguntza eskatzeko. Hark lasaitzen eta elkar entzuten lagunduko die, baina ez du zertan lehenengo bide eta bakarra izan. ■ A.Ugalde

@anbotokultura

# KULTURA>

**ELKARRIZKETA>** OLGA URIBE, CARMEN PEREZ ETA PURI SARRIONANDIA

# “Jendeak gure piezak sortzeko prozesua ikustea gura dugu”

Urriaren 12, 13 eta 14an, euren artisautza lanaren erakustaldia egingo dute Durangoko Barrenkaleko Liber dendan Olga Uribe, Carmen Perez eta Puri Sarrionandia artisauek; dendan bertan erantzun dituzte galderak



Ezkerretik eskumara: Olga Uribe, Carmen Perez eta Puri Sarrionandia, Liber dendako lehenengo pisuan.

***Zelan elkartu zarete ekimen hau martxan jartzeko?***
**Puri Sarrionandia:** Olgak urteak daramatza bere lanak hemen erakusten eta saltzen. Zenbat urte?
**Olga Uribe:** Duela hogei urte baino gehiago hasi nintzen dendan, eta baserrira bizitzera joan nintzenean Puri geratu zen dendaren arduradun. Egia esan, urte asko dira hirurok ere elkar ezagutzen dugula.
**P. S.:** Artisautzan jarduten dugunok faltan izaten dugu askotan lanak erakutsi eta aurkezteko espazio aproposa. Guk badaukagu, eta horrela pentsatu genuen asteburu honetako ekimena. Gure enkoadernazio eta zeramika tailerrak eta ehundegia bistaratuko ditugu.

> “Printzipioz asteburu honetarako, egunotarako planteamendua da”

***Hiru tailerrak hemen batzearena luzerako planteamendua da, edo zerbait puntuala?***
**P. S.:** Printzipioz hiru egun hauetarako planteamendua da, eta ekimenak daukan harreraren arabera erabakiko dugu aurrerantzean zer egin. Beharbada data bereziean errepikatuko dugu asteburu honetako ekimena.
**Carmen Perez:** Izan ere, helburua, egiten dugun lana jendeari gerturatzea baita. Olgak eta nik baserrian egiten dugu lan.
**O. U.:** Jendeak gure piezak sortzeko prozesua bertatik bertara ikustea da gura duguna.

***Zelan aurreikusi duzue asteburuko hitzordua?***
**P. S.:** Olgak ehundegia ekarriko du, Carmen zeramika lantzen eta azaltzen egongo da, enkoadernazio lana egingo dut nik.

***Nahi duenak erosi ere ahalko ditu zuen piezak, ezta?***
**O. U.:** Ederra litzateke! Jendeak zelan lan egiten dugun ikusi, produktua ezagutu eta baloratu dezan gura genuke.

***Helburu horrekin, artisautza azoketan parte hartzen duzue?***
**O. U.:** Carmenek eta biok parte hartzen dugu, bai: Durangoko Euskal Dendan, Bilboko eta Oreretako artisautza azokan, eta beste hainbat lekutan egoten gara.

> “Artisauok faltan izaten dugu sarri gure lana erakusteko espazioa”

***Zelan ailegatu zarete artisautza ogibide izatera?***
**O. U.:** Carmenek eta biok urte asko daramatzagu artisautzan…
**C. P.:** Bai… Herria auzo elkarteak duela urte asko antolatu zituen tailerretan ezagutu genuen elkar, eta bizitza paraleloak izan ditugu. Gaur egun, Pinondon ematen ditut nik zeramika tailerrak.
**P. S.:** Beste batzuentzat lanean urteak eman ostean langabezian geratu nintzenean heldu nion nik artitsautzari. Bilbon, Atxurin, ikasi nuen enkoadernazioa eta diseinu grafikoa, eta denda zabaldu genuen bi urtera. ■ I.E.







## “Oso-oso zaila da artisautzatik bizitzea”

Artisauek egiten duten lanaren balioa erakutsi gura dute hiru emakume durangarrok asteburuko ekimen honegaz

Delineazioa ikasi zuten Carmen Perezek eta Olga Uribek, baina sekula ez dute horretan lan egin. Artisautzak elkartu ditu gehiago euren bizitzetako bideak. Debako eskolan artisautza ikasi zuen Perezek, eta autodidakta izan da Uribe beti. Metodoa? “Probatu, egin, egin, teknika ulertu eta gero lanean jarraitzea”.

Orain, Bilboko Arte eta Historia Museoan gordeta dauden pieza zaharren erreprodukzioak egiten ari da Uribe, galduta dauden teknikak berreskuratzen, ehungintzako tradizioa eta historia ikertu eta ezagutzera emateko. Lan horiek ere erakutsiko ditu asteburuan.

Besteak beste, Perezek Mañariako bere tailerrean egindako piezak Bilboko Alhondegiko jatetxean erabiltzen dituzte. “Ez da ontziteria osoa, baina gauza bereziak zerbitzatzeko erabiltzen dituzte nire piezak”. Piezak ez ditu sekula seriean egiten: eskuz egindakoak, bakarrak dira.

Artisautzaren inguruan bizitzeak dakarrenaz solasaldia eduki dute hiru sortzaileek. “Oso oso zaila da artisautzatik bakarrik bizitzea”, dio Uribek.

Asteburuan egingo dutena, Frantzian edo beste herrialde batzuetan oso ohikoa da: artisaua bere *atellier*-ean, bere etxean egoten da lanean eta saltzen. Hemen ere horrela izatea gustatuko litzaieke hiru emakumeei.

“Nik uste ez dela artisautza behar beste baloratzen”, dio Uribek. “Hobera egin beharrean, txarrera doa artisautzaren baloratzioa: eskuz egiten den guztia ez da artisautza”. Sorkuntza ei da artisautzaren oinarria.

Asteburuko erakusketan, artisauek egindako lanak daukan balioa islatu gura dute: sorkuntzarena, dedikazioarena.

ARGAZKIGINTZA> ERAKUSKETA

# Duela ehun urte herriz herri erretratuak egiten zituzten 'Minutalarien' omenez

Durangoko Museoko erakusketa eta *Kale-argazkilariak, Minuteros* liburua prestatu ditu Jose Maria Uriartek




Jairik jai, jendea batzen zen lekuetan erretratuak egiten zituztenen lanbideari, *minutalarien* lanbideari, errepasoa egiten dion erakusketa ipini dute Durangoko Museoan. Museo horren babesletzagaz, azken urte bietan Jose Maria Uriarte irakasleak bere denbora librean egindako lanaren emaitza da erakusketa: argazkigintzaren historiaren XIX. mende amaierako parte hori da erakusketaren ardatza.

Sarritan euren dekotaratuak eta *atrezzoa* hartuta, herri eta ermitetako erromerietan zehar bidaiatzen zuten euren zurezko kamera handiak hartuta kale argazkilari horiek, minutalariek. Momentuan bertan errebelatu eta saltzen zituzten erretratuak. "Mundu osoan zabaldutako fenomeno herrikoia izan zen", Uriartek dioenez. Durangaldean, Urkiolan, Oizen (San Kristobal ermitan) askotan egiten zuten lan minutulariek, eta baita herri gehienetako erromeria eta ospakizunetan ere. Hain zuzen, Uriartek azpimarratu duenez, "geografiaren azken muturrera arte ailegatzen ziren, eta argazkigintza zelanbait demokratizatu eta merketzea ekarri zuten".



> Azoka txikietan eskuraturikoak dira Uriartek erakusketarako batu dituen argazki gehienak

Jendeak emandakoak eta azoka txikietan eskuraturikoak dira Uriartek erakusketarako batu dituen argazkiak. Durangoko Arte eta Historia Museoko erakusketan, besteak beste, argazkiak eta argazki kamera bat daude ikusgai, abadiñar batek 80ko hamarkadan Uruguain erosi zuen minutulariek erabiltzen zituztenak lakoa.Erakusketa zabaltzeagaz batera, Uriartek prestatu duen *Kale-argazkilariak Minuteros* liburuxka ere salgai ipini dute. ∎ I.E.

PINTURA> ERAKUSKETA

# Naturako elementuak, biologoaren margoetan

Urriaren 30era arte daude Iñaki Zorrakinen lanak Elorrioko kultur etxean





Iñaki Zorrakin Santurtziko biologoa zenaren marrazkien bilduma dago Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai. Naturako elementuen ilustrazioa landu zuen Zorrakinek. Euskal Herrian argitaratu diren naturari buruzko aldizkari eta liburu askotan kolaboratu zuen. Naturaren eszenak marrazki bidez jasotzen zituen biologoak.

Bera hil eta gero, Zorrakinen lagunek katalogaturiko lanak dira Elorrioko kultur etxeko erakusketan batu dituztenak: Zorrakinen milaka marrazki jasotzen ditu erakusketak. Biologo eta marrazkilariaren lana gogoratzea eta natura aztertzeko bere moduaren lekukotasuna uztea nahi dute. Urriaren 30era arte egongo da erakusketa hori Iturri kultur etxean zabalik, gerturatzen denarentzat. ∎ I.E.

> Hil eta gero, Zorrakinen lagunek katalogatu dituzten lanak dira erakusketan batu dituztenak

GEURE DURANGALDEA



Jon Ander Urkiaga
Ikaslea

## Berandutzen ari zaigu

Zergatik darrai munduak borobila izaten?

Ez dakit gizakiari ote dagokion gizatiar adjektiboa. Humanoa.

Haurrek soilik gordetzen dute gizatasun hori euren begiradetan. Eta, zorigaitzez, begirada horiek gero eta denbora gutxiago behar izaten dute zikinkeriaz betetzeko. Erabat lohitzeko. Gizatasuna ez da gizarte terminoaren parte; gizatasuna giza artea da, tamalez, gaur egun inork gutxik erdietsi dezakeen adierazpide poetikoa.

Distira hori da gure begiradetan falta zaiguna. Distira humanoa. Distira gizatiarra. Eta horren fabore ezer egiteko gertu ez bagaude, hobe geundeke begiak itxita; eta hala gaude egon. Itsu. Auto-ekoitzitako itsutasun global baten parte gara.

> Beldurra ematen digu arazoaren erroetara itzulinguru barik abiatzeak

Badaude kantak hilabeteren buruan mundu osora zabal daitezkeenak. Baina, gaur egun, behintzat, bihotz taupada ilara bat ez da giza gorputz zurruna zeharkatzeko gai. Arnasa berdin-berdin har daiteke lainoz jantziriko mendi tontor baten pausaturik, zein itsas hondoko arroka labainkorretan oreka galtzeko zorian egonik. Azken hatsak baino ez ditu bereizten bata eta bestea. Azken hatsak berdintzen gaitu. Begiradetan behar genukeen distira horren baitan dago zergatia.

Gaitza da esplikatzen esplikaziorik eduki beharko ez lukeen zerbait. Baina are gaitzagoa da esplikatzen, esplikazioa eduki arren, hitz egokiak aurkitzea ere zaila egiten zaigun hura.

Beldurra ematen digu erradikal izateak eta arazoaren erroetara itzulinguruka aritu barik abiatzeak. Gizakiari gizaki denetik dagokion gizatasunaren berreskuratze urgentea da behar duguna. Hori da benetan humanoa. Printzipala, printzipalik bada.

Zergatik da alua mundua?

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

BILBAO ASEGUROAK
Jabier Rueda
Grupo CATALANA OCCIDENTE
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Dina
Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

**ELKARRIZKETA>** XABIER AMURIZA

# “Laburtu eta zentratu egin gura izan dut aurreko liburukoa”

Gaur aurkeztu du Xabier Amurizak ‘Zazpi ebidentzia birjaiotzarako’. Duela bi urteko liburuan jorratu zituen gaietako “arazo nagusietan” zentratu da



***2010ean kaleratu zenuen ‘Euskara batuaren bigarren jaiotza’ liburuak planteatutako gaiei heldu diezu?***
Bai, liburu hartan lantzen nituenetatik inportanteenak iruditzen zaizkidan gaiei heldu diet. Laburtu eta zentratu egin gura izan dut *Euskara batuaren bigarren jaiotza* aurreko liburuan esandakoa. Ebidentziak dira honetan planteatzen ditudanak. Ni eta beste asko ebidentzia hauetara ailegatuta gaude, eta horiek aurkezten ditut. Nik ez diot euskaraz txarto idazten denik, baina bai askoz hobeto idatzi daitekeela.

***Zeintzuk dira liburuan planteatzen dituzun zazpi ebidentzia horiek?***
Esaldien luze-laburra; perpausaren ordena; erlatiboa; aditza; ondare komuna, lexikoa; esapideak eta esaerak; eta argota dira plazaratzen ditudan zazpi ebidentziok. Liburuko kapitulu bati izenburua ematen dio gai bakoitzak. Adibide ugari eta proposatzen ditudan gaiei buruzko hainbat irakurgai ere batu ditut liburu honetan: datorren urtean argitaratuko dudan *4 x 4 operazioa* liburutik hartutakoak. ‘Saiaeratura’ egin dut: saiakera eta literatura uztartu ditut.

***Zer defendatzen duzu ebidentziokin?***
Lehenengo ebidentziagaz, esaterako, euskarak, tresna bezala, gaitasun osoa eta normala eduki behar duela esaten dut: esaldi mota guztiak, labur zein luze, errazak zein konplexuak, nahiaren arabera josteko baliabideak behar ditugu. Inguruko hizkuntza guztien antzera. Aditzari buruz, ebidentea da erraztea, laburtzea eta sinpletzea komeni dela. Oso beharrezkoa da hori, izan ere, aditz horregaz ezin baita munduan ibili.

***Asko insistitu duzu aditza laburtzeko beharrizan horretan.***
Hori egiten ez badugu inork ez du erabiliko, ez osoan, ez laburrean. Laburtu egin behar dugu, eta pentsatu behar dugu hori zelan lortu. Aditz honen egituragaz ezinezkoa da inguruko hizkuntzekin konpetitzea komunikabideetako edo publizitateko hizkuntzan, esaterako. Aditza izaten da oztopo nagusia, titular bat edo kanta bat idazterakoan edo euskarara itzultzerakoan. Ezin dugu bide estu batean gurdi handi bategaz ibili, egokitu egin behar dugu.

***Zaildu beharrean euskara errazteko proposamena da egiten duzuna?***
Planteamendu faltsua da hori. Gaiaren konplexutasunaren arabera erregistro desberdinak behar ditugu. Errazean nahiz zailean, arazoa da, aditzaren luzeragaz beti marapilo bategaz egiten dugula topo.

***Zure planteamendu horiek konpartitzen ez dituenik topatu duzu?***
Badago horrela ikusten ez duen jenderik, noski. Hemen aurkezten ditudan zazpi ebidentziak mendi lerro bat legez dira, zazpi mendi punta. Ni alderdi batean nago, eta beste alderdian dagoenak ez du hau ikusten. Alderdi honetan dagoenak, euskara praktikoagaz dabilenak, ikusten du, baina oraindino batzuk mendian ere ez daude. Gai hauei buruzko eztabaida zabaltzea da nire helburuetako bat.

> “Nik ez diot euskaraz txarto idazten denik, baina bai, askoz hobeto idatzi daitekeela”

***Eztabaida sortu zuten aurreko liburuan egiten zenituen planteamenduek?***
Nik gura beste ez, egia esan. Euskaltzaindiak, esaterako, beste erritmo batean jarduten du. Lexiko kontuan, adibidez, inguruko hizkuntzak nahikoa aktualizatuta daude, baina gure Euskaltzaindiak lanak amaitu orduko... Benetan arduratzekoa da gurean daukagun kriterio falta. Euskararen gainean gandu moduko bat dago, ez diguna uzten gora ateratzen.

***Zer lanetan zabitza orain?***
*Joan ziren* zikloko laugarren liburua amaitu dut (*4 x 4 operazioa* izenekoa), eta datorren urtean argitaratuko dut. Herriz herri *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* liburu honen aurkezpenak eskainiko ditut orain, gaiotaz berba egin gura dut. ■ I.Esteban




## “Ez gara ohartzen euskara ondare komun bateko partaide dela”

“Zergatik hartu behar dugu beti formularik zailena?”, galdetzen du Amurizak. “Euskarak badauzka posibilitateak, baina onena aukeratzen asmatu behar dugu, ez zailena eta luzeena!”.

Gaztelerazko *ambición* berbaren itzulpena da Amurizak aurkeztu duen ebidentzia horren adibidea. Inguruko hizkuntza guztietan erro bereko berba erabiltzen da, baina euskaraz, *anbizio* berba ez onartzeagatik, sinonimo zerrenda bat ematen digu hiztegiak. “Beste guztiek onartzen dutenean, gu, UVIan dagoen hizkuntza batetik hasiko gara hori aldatzen?”, dio Amurizak.

Horrelako adibide zerrenda luze bat osatu du: 2.000 berbatik gora jaso ditu inguruko lau hizkuntzatan komunak direnak. “Ez gara ohartzen euskara ondare komun bateko partaide dela, eta horrek lexikoan bere eragina izan behar duela: euskara batuko hiztegiak, oraindik proportzio etsigarrian, zirriborro rustikoak besterik ez dira”.









# Jatetxe gida





## Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



## Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.




## Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




## Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



## Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringa. Zorion askariak.
batzokielorrio **www.batzokielorrio.com**



## Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.

@anbotokirola

# KIROLAK



Durango Rugby Taldeko gizonen talde nagusia, astelehen arratsaldean, Arripausuetan egindako entrenamenduan.

# Trantsizioko denboraldia, proiektu berriari ekiteko

## Erreferente ziren jokalariek DRT taldea utzi dute; geratu direnekin eta harrobiagaz, proiektu berri baterako zimendua eraiki gura dute

Aurtengoa trantsizio denboraldia izango dute Durango Rugby Taldeko gizonek. Iaztik hona gertatu diren aldaketak kontuan hartuta, talde orekatua eraikitzea eta esperientzia pilatzea dute helburu: berba bitan esanda, proiektu berri baterako zimenduak ezartzea.

Peio Urkidiren (Getxo, 46 urte) esku utzi dute proiektua. Urkidik 25 urteko esperientzia du entrenatzaile, horietako gehienak Getxo Rugby Taldeko beheko mailetan. Gaur egun, Euskadiko Selekzioko hainbat taldetako hautatzaile edo entrenatzaile ere bada. Hala ere, aurtengoa izango du seniorren errugbi talde bateko aulkian esertzen den estreinako denboraldia. Orain arte, eskola kirolean, kadeteetan edo gazteen mailan ibili izan da. Durango Rugby Taldearen filosofia atsegin duela dio, eta horregatik onartu duela entrenatzaile kargua: "Durangon gustatzen zaielako jokatzen dute errugbian. Ez dago Getxon edo Ordizian aurkitu ahal den lehiakortasun izaera. Harrobian sinetsi eta azken urteetan lan itzela egin dute arlo horretan. Horregatik onartu dut egin zidaten eskaintza".

> Asteburuan hasiko dute aurtengo denboraldia Coruñan

> Urkidik 25 urteko esperientzia du entrenatzaile, gehienak Getxo Rugby Taldean

Zuzendaritzaren babes osoa du aurretik duen proiektua gauzatzeko. Taldearen helburua Ohorezko B mailari eustea da, baina erotu barik. Lehenengo, etorkizunari bermeagaz aurre egiteko apurka-apurka talde dinamika sortu eta sendotu.

Izan ere, erreferente ziren hainbat jokalarik taldea utzi dute: Zorion Zabalak eta Jabi Ricok, esaterako. Aurreko lerro osoa berria izango da aurten; orpokatzailea ere bai. Baliteke Rico (taldeko kapitaina) hile batzuen barruan bueltatzea, baina momentuz bera barik hasiko dute denboraldia.

Urkidik itxaropen handia du harrobian: "Orain urte batzuek jokalari gutxi hautatzen zituzten Euskadiko selekzioetarako eta orain hainbat joaten dira. Maila badago". Aurten gazteen mailako jokalariak erabiliko dituela adierazi du. Beraz, "formazioan dagoen taldea izango dugu eta esperientziadunen eta esperientzia bakoen arteko oreka bilatzen saiatuko gara".

> "Esperientziadunen eta bakoen arteko oreka bilatzen saiatuko gara"

Asteburuan hasiko dute aurtengo denboraldia, Coruñan (Galizia). Iaz maila handia eman zuten galiziarrek. Ez dute aurtengo taldearen erreferentzia handirik. Iazko baliabide ekonomikoei eustea lortu badute, Durango Rugby Taldearen proiektu jaioberriak erronka gaitza izango du Galizian. ▪ J. D.

---

- Arkaitz Gurrutxaga
- 23 urte, Durango



## "Alturak gehiago laguntzen zidan saskibaloian"

**Umetatik saskibaloian jokatu du Tabirako Baque taldean. Bost urte zermatzan talde nagusian. Aurten errugbia probatzea erabaki du eta DRTra batu da.**

**Zergatik utzi duzu saskibaloia eta aukeratu errugbia?**
Niri kirol denak gustatzen zaizkit, denak praktikatzea gustatuko litzaidake. Hori ezin da. Errugbian jende ezaguna dut eta sarritan tentatu izan naute. Pare bat urtean dudatan egon ostean, aurten probatzea erabaki dut.

**Orain arte zer sentsazio utzi dizkizu errugbiak?**
Politak. Kanpotik benetan dena baino kirol astokiloagoa ematen du. Taldekideek ere horixe esaten zidaten batu nintzenean. Kolpeak eta lesioak badaude, bai, baina taktikak ere garrantzia handia du. Oraingoz asko gustatu zait.

**Gorputz handia duzu. Horrek ere lagunduko du.**
1,93 metro neurtzen dut. Egia esanda, saskibaloian gehiago laguntzen zidan [barreak].

**Ubeldurik bai?**
Baten bat bai, besoetan eta hanketan, baina ezer askorik ez. Oraingoz ez naiz kexatzen. Geroago seguru baietz.

**Zeren baitan dago zu errugbian geratzea edo saskibaloira bueltatzea?**
Lehenengo eta behin probatu egin nahi dut. Oraingoz ikusi dudana asko gustatu zait. Denboraldian zehar sentsazioak berberak badira errugbian geratuko naiz gorputzak laguntzen didan arte.

**Tabirako Baqueren ibilerak hurretik jarraituko dituzu?**
Ahal ditudan partidu gehienak ikusiko ditut. Gehien gustatzen zaidan kirola da. Aurten ondo hasi dira eta mailari erraz eutsiko diotela uste dut.

CENTRAL FORESTAL
42 Urte Euskal Basoen Zerbitzura
Smurfit Kappa Nervión
Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!
Jasangarritasuna bermatzen
PEFC FSC
ziurtagirien bitartez

# Etxetik kanpora erosoago sentitzen da Kulturala

Tabira zelaian atzean gotortzen zaizkio arerioak kontraerasoaren bila; kanpoan partiduak irekiagoak dira eta errazago aurkitzen ditu zuloak



Kulturalak geldikako jokaldietan jaso ditu orain arteko golik gehienak. Kepa Aginako

Durangoko Kulturalak futbolean jokatzeko eredu bera darabil azken hiru denboraldiotan. Badira ezaugarri batzuk bere egin dituenak. Baloiaren jabetzan sinesten du eta konbinazio, desmarke edo bat-biko biziak darabiltza gora heltzeko. Partiduko erritmoa markatzea gustatzen zaio. Aurkariek badakite hori eta Tabirara datozenean atzean defendatzen dute, kontraeraso aukerak baliatzeko. Etxetik kanpo, ordea, partiduak irekiagoak dira eta zirrikituak errazago bilatzen ditu.

Zazpi jardunaldiren ostean, Kulturala laugarren dago eta goi mailan ari da, baina etxetik kanpo uzta oparoagoa batu du. Oraindik ez du partidurik galdu kanpoan; garaipen bi (Getxon eta Santutxun) eta berdinketa bat (Portugaleten). Etxean lau partidutik bat irabazi du eta joan zen astean denboraldiko lehenengo porrota jasan zuen Gernikaren aurka (0-2).

Mikel Agirregomezkorta entrenatzailea gustura dago taldeak partidu denetan erakutsi duen izaeragaz: "Emaitzak onak izan dira, baina batez ere zelaian ikusi dudanagaz nago gustura. Sentsazio oso onak utzi ditugu liga hasieran. Talde legez jokatu dugu". Liga hasiera onak emandako konfiantzagaz Zalla bisitatuko dute asteburuan.

**Geldikako jokaldiak**

Jasotako eta sartutako golen balantzea ere positiboa da: bost jaso eta bederatzi sartu. Sartu dizkieten goletatik lau geldikako jokaldietan etorri dira. Horrek, alde batetik, erakusten du baloia jokoan dagoenean defentsa sistema sendoa dutela. Baina geldikako jokaldiak harrera gehiagoz zaindu behar direla ere ondorioztatu daiteke. ■ J.D.

## ADITUAREN TXOKOA



Gotzon Gomez
Errugbi entrenatzailea

### Kirola eta krisia

Azken aldi honetan ahoz aho darabilgun hitza dugu krisia, eta kirolean ere nabariak dira ondorioak. Hori horrela izanik, komunikabideetan agertzeko aukera gutxi duten kirolak egoera larriagoan daude. Sasoi onenetan gaitza bazen babesleak, bultzatzaileak edo laguntzaileak edukitzea, orain soluzio irudimentsuak bilatu behar aurrera jarraitu ahal izateko.

Aurreko guztiari konponbidea emateko gai izango banintz fenomeno itzela nintzateke, baina nire asmoa arlo filosofikoa indartzea besterik ez da. Posible da sarrera ekonomiko murritzak dituen kirola, erdi profesionala legez kudeatzea? Eta hori da hain zuzen ere, nire iritziz, gure inguruan aritzen diren taldeek egin beharreko aurreneko galdera. Ez errugbikoek bakarrik, baita futbolak, saskibaloiak, eskubaloiak... ere.

Erantzuna ezezkoa balitz, eta nire iritziz hauxe dugu errugbiaren egoera, baita eskualdeko hainbat kirol taldeetakoa ere, filosofia aldatu beharko litzateke eta jokalariak guztiz amateurrak izan beharko lirateke. Diru sarrerak, gutxi izanik ere, bidaiak eta harrobia lantzeko bideratu beharko lirateke.

Agian utopiko hutsa naiz, baina halako neurriak hartzen ez baditugu gerta daiteke talde bat baino gehiago zorrak itota desagertzea. Azken unean beti egoten da erakundeetara jotzeko aukera, baina erakundeak nola dauden ikusita ez dut uste inor arrisku hori hartzeko prest egongo denik.

Amateur berbagaz hau esan gura dut: bere herriko taldearen koloreak defendatzeko prest dagoena, baina beti ere musu truk. Zaletuen oihuak, animoak, txaloak eta noizean behin oihuak jasotzearen truke. Hor uzten dut gaia hausnar dezazuen.

# Autoak ez zion onena ematen utzi Urieni

Radical Masterreko azken aurreko proban arazo asko izan ditu gidari abadiñarrak



Igor Urien, Radical SR8aren barruan.

Doningtoneko zirkuituan jokatutako lasterketa amesgaizto bihurtu zen Igor Urien pilotuarentzat. Europako Radical Master txapelketako azken aurreko probara sailkapen nagusian lehiatzeko aukerekin heldu zen abadiñarra, baina bata bestearen atzetik etorri zitzaizkion arazo mekanikoen ondorioz, ezin izan zuen bererik eman.

> "Etsigarria da hainbeste arazo mekaniko izatea"

Lehenengo lasterketan, 19. postutik bigarrenera pasatu zen, eta zer eman zezakeen garbi erakutsi zuen. Baina autoari balazta hondatu zitzaion eta erretiratu egin zen. Bigarren lasterketan abiadura-aldagailuan arazoak izan zituen eta ezin izan zuen bederatzigarren postutik harago joan.

Urienen esanetan, "etsigarria da hainbeste arazo mekaniko izatea. Egia esanda, une batean ere ez naiz autoagaz gustura sentitu. Aukera ona galdu dut txapelketaren borrokan jarraitzeko". Txapelketako azken proba Katalunian izango da, azaroaren 2an. ■ J. D.

## Kilometro Bertikalen zirkuitua Iñigo Larizek irabazi du



Mugarra triatloi taldeko Iñigo Larizek Euskal Herriko Igoera Bertikalen zirkuitua irabazi du. Lau igoerek osatu dute zirkuitua. Azpeitian eta Txindokin bigarren amaitu zuen; Uharte-Arakilen laugarren; eta joan zen asteburuan, Anboton, bosgarren (43:17). Anbotoko aldapetan Aritz Egea urretxuarra izan zen azkarrena (40:21) eta Arkaitz Zamakona otxandiarrak (41:49) eta Oier Ariznabarreta durangarrak (41:49) osatu zuten podiuma. ■ J.D.

## Frontenis torneo bat egingo dute Mallabian

Urriko jaien barruan binakako frontenis txapelketa antolatuko dute Mallabian. Txapelketako partidurik gehienak urriaren 19tik 21era doan asteburuan jokatuko dituzte. Finala, berriz, urriaren 27an jokatuko dute. Lehenengo fasean bikoteak ligaxketan ariko dira norgehiagoka. Fase hori gainditzen duten frontenislariak kanporaketa sistemaren bidez neurtuko dira finalera arte.

Txapelketa irabazten duen bikoteak 60 euro eta garaikurra jasoko ditu eta bigarrenak 40 euro eta garaikurra.

Izen-ematea urriaren 16ra artekoa da eta 10 euro balio du. Mallabiko kultur etxean inskribatu ahal dira bikoteak, edo honako telefono zenbaki honetan: 669 028 718. ■ J.D.

# Lepo bete domina lortu dituzte Zuazubizkar eta Leanizbarrutiak

Mallorkan jokatutako pistako Espainiako txapelketan bost domina irabazi dituzte

Orbea eta Cespa Euskadi taldeekin pistako Espainiako Txapelketan parte hartu dute Illart Zuazubizkar (Abadiño, 22 urte) eta Iban Leanizbarrutiak (Berriz, 24 urte). Bien artean bost domina jantzi dituzte.

Biak ala biek ez zuten espero halako emaitza onik lortzerik. Mallorkako Palma Arena belodromoan jokatutako txapelketan (Herrialde Katalanak), Zuazubizkarrek urrezko domina jantzi zuen 23 urtez azpiko jarraipen proban (erlojupekoa) eta brontzezkoa eliteetan. Domina bi horiei taldekako brontzezkoa gehitu behar zaie, Leanizbarrutiarekin eta gainerako taldekideekin batera lortutakoa. Hiru domina horiek dira abadiñarrak Espainiako txapelketa batean lortzen dituen aurrenekoak: "Orain arte beti atarian geratu izan nahiz: laugarren, bosgarren... Pozgarria da lehen dominak irabaztea".

Zuazubizkar Orbea taldeagaz ibili da errepidean. Aurten izan du estreinako denboraldia Euskadi Fundazioaren taldean. Datorren denboraldian ere talde berean jarraituko du eta errepidean eta belodromoan, bietan aritzeko asmoa du.



Illart Zuazubizkar eta Iban Leanizbarrutia Espainiako txapelketan irabazitako lau dominarekin.

### Epaileen erabakia

Denboraldi osoan, errepidean zein pistan, bere mailatik behera ibili ostean, Leanizbarrutiak unerik aproposenean eman du bere onena. Scratch modalitatean lortutako zilarra ez zuela espero aitortu du. Eta zilar hori urrea ere izan zitekeen epaileek beste modu batera jokatu izan balute.

Esprinta abiatzen zebiltzala, irabazleak pistaren barrualdeko marra urdina zapalduz aurreratu zuen txirrindulari bat, beste denek kanpoaldetik aurreratzen zuten bitartean. Araudiak dio galerazita dagoela marra urdina zapaltzea edo gainditzea. Gertaera erreklamatu ondoren, probako epaileek ez zuten inolako zigorrik ezarri, erorikoa eragozteko maniobra bat izan zela argudiatuz. ∎ J. D.

# Pradera eta Araistegi munduko onenen artean

Dublinen Munduko esku pilota txapelketako 'one wall' jokamoldean parte hartuko dute

Gaur hasi da Dublinen (Irlanda) Munduko eskupilota txapelketa. Datozen egunetan *four wall* partiduak jokatuko dituzte (lau hormatara). Euskal selekzioak ez du modalitate horretan parte hartuko eta astelehenean abiatuko dira hara, *one wall* espezialitatean jokatzeko (horma bakarrera).

Euskal selekzioa osatzen dutenen artean Itsaso Pradera eta Amaia Araistegi daude. Bikotea osatuz, mallabitarrek lehenengoz parte hartuko dute munduko txapelketan.

> Iker Gordon eta Aitor Erauzkinek osatuko dute nagusien bikotea

### Amantegi ez da joango

Gizonetan, Iker Gordonek eta Aitor Erauzkinek osatuko dute nagusien bikotea eta Ekhi Ziarrustak eta Mikel Larrañagak hogei urtez azpikoa. Euskal selekzioko hutsunerik handiena Egoitz Amantegirena da. Abadiñarrak ezin izango du Dublinera joan. Amantegi *one wall* modalitateko espezialista da. Esaterako, 2006ko munduko txapelketan binakako eta buruz buruko txapelak jantzi zituen. ∎ J. D.

# Uriarte eta Ugarte, bikote sendoena trinketean

Rober Uriarte abadiñarrak eta Inhar Ugartek, Amankomunazgoa Saria txapelketa irabazi zuten joan zen asteburuan. Abadiñoko Tornosolo trinketean jokatu zen finala eta 40-31 menderatu zituzten Mikel Gonzalez berriztarra eta Mikel Landa.

Bikote biek lehia gogorra mantendu zuten partiduak iraun zuen ordu eta erdian. Uriarte defentsan oso iaio ibili zen eta erasoan azti. Abadiñarrak hogei tantu egin zituen guztira, horietatik bederatzi sakez.

Mikel Gonzalez berriztarrak hamabost tanto egin zituen, bost sakez. Abiadura eman zion pilotari eta jokoaren erritmoa aldatu zuen, baina tantoa amaitzerakoan hobeto ibili zen Uriarte. ∎ J. D.

> Abadiñarrak 20 tanto egin zituen, horietatik bederatzi sakez

## Bizkaiko ziklista onenak saritu zituzten Garain

Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak 43. Pedal Eguna ospatu zuen joan zen asteburuan. Amorebieta-Etxanotik irten ziren txirrindulariak eta Garai izan zen helmuga. Garain hainbat txirrindulari saritu zituzten. Esaterako, Zaldibarko Lagun Artea gaztetxoen taldea (irudian) saritu zuten urte osoan zehar egindako lanagatik.




## Agenda

**FUTBOLA**
OHOREZKO MAILA
**Iurretako - Ugeraga**
Barikuan, 18:00etan, Larrakozelain
LEHENENGO ERREGIONALA
**Berriz - Ugao**
Barikuan, 17:00etan, Berrizburun
**Zaldua - Ermua**
Barikuan, 17:00etan, Solobarrian
BIGARREN ERREGIONALA
**Ezkurdi - Peña**
Domekan, 16:30ean, Arripausuetan
HIRUGARREN ERREGIONALA
**Elorrio B - Iurretako B**
Barikuan, 17:00etan, Eleizalden

**ARETO FUTBOLA**
HIRUGARREN MAILA
**Mallabia - Soloarte**
Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian
EUSKAL MAILA
**Kurutziaga - Saltxaileak Alkideba**
Barikuan, 12:00etan, Landako kiroldegian
**Abadiñoko Lagun - Arabako EHU**
Domekan, 11:45ean, Berrizko kiroldegian
MAILA GORENA
**Presion Break - Sasikoa B**
Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun
LEHENENGO ERREGIONALA
**Elorrioko B - Gernika**
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian
**Sapuberri - Arabella**
Eguaztenean, 20:45an, Landako kiroldegian
**Dantzari - Sumi Muguru**
Zapatuan, 18:00etan, Lanbide Heziketa Institutuan
EMAKUMEEN LIGA
**Sasikoa - Stilo Berrio B**
Barikuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

**SASKIBALOIA**
LEHENENGO MAILA (gizonak)
**Tabirako Baque - Askartza Claret**
Barikuan, 12:00etan, Landako kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA
**Tabirako Baque - Unamuno**
Gaur, urriak 11, 20:30ean, Merkatu plazan

**PILOTA**
OLAZAR TXAPELKETA
***Lau t'erdian:***
**- Arrieta - Etxaniz**
***Binaka:***
**- Mendinueta - Perez / Alabarado- Telletxea**
Urriaren 18an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

**ERRUGBIA**
EUSKADIKO LIGA (emakumeak)
**- D.R.T - La Unica**
Bihar, urriak 12, 12:00etan, Arripausuetan
RUGBY EGUNA
**Paella banatuko du Durango Rugby Taldeak**
Bihar, urriak 12, 15:30ean, Rugby tabernaren aurrean

# AISIALDIA >

gazte gara gazte!

# Biharko musikari euskaldunek atzoko euskal kantak abestuko dituzte Plateruenean










Euskal kantuen Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelketetan parte hartu dute

“Denek izaera handia dute eszenatokian. Ez dira beldurtzen. Ikuskizun ederra izango da, seguru”

Olatz Goikoetxea eta Esti Olivares Euskadiko txapeldunak dira bikoteka abestuz

Ikuskizuna, musika eta eszenatokia zainetan dituzten sei musika talde gaztek euskal kantuez osatutako emanaldia eskainiko dute urriaren 19an, 20:00etan, Plateruena kafe antzokian. Sarrera doakoa izango da.

Euskal kantuen Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelketetan (gazteen mailan zein nagusietan) parte hartu dute taldeek eta bikote guztiek. Beraz, gazteak izanagatik badute esperientzia eszenatoki gainean. Plateruenean zuzenean ikusi ahalko direnetako hiru talde Durangokoak dira: batetik, Amaiur Azkarate, Ainhoa Devesa, Maite Molina, Itziar Muguerza eta Maialen Izagirrek osatutako Xaramel taldea; bestetik, Irati Alonsok eta Itsaso Abaunzak osatutako Ametsetatik Errealitatera; eta hirugarrenik, Geu be taldea.

Beste talde batean, Iraitz Udabe mallabitarrak Barakaldoko Iraia eta Irantzu Rojogaz hirukotea osatuko du. Bikote bik ere parte hartuko dute: Ermuko Leire eta Iker Elustondo neba-arrebek, eta Zeanuriko Olatz Goikoetxeak eta Esti Olivaresek.

Euskal kantuzaleen elkarteak mota honetako erakustaldia Durangaldean antolatzen duen lehenengo biderra izango da. Gazteek txapelketa ofizialetako urduritasuna alboratu eta musikagaz bete-betean gozatzeko aukera izango dute, eta epaile bakarrak musika zaleak izango dira: “Maila handia egongo da. Denek ere izaera handia dute eszenatokian, ez dira beldurtzen. Ikuskizun ederra izango da, seguru”, azaldu du Roberto Palaciosek, ekimeneko sustatzaileetako batek.

### Hainbat sariren jabe

Agertoki gainean duten izaeraren erakusgarri dira azken urteetan lortu dituzten sariak. Xaramel taldeak Haur Kantarien Bizkaiko txapelketako hainbat arlotan lortu du gailentzea: taldeka, bikoteka eta *a capella* abestuz. Euskadiko txapelketan, berriz, bigarren geratu dira taldekako modalitatean. Olatz Goikoetxea eta Esti Olivares Euskadiko txapeldunak dira bikoteka, eta Leire eta Iker Elustondo bigarren geratu ziren modalitate berean, euren kategorian.

### Abesti ezagunak zein berriak

Irati Alonsok eta Itsaso Abaunzak (hamasei eta hamabost urte, hurrenez hurren) osatutako taldea oraintsu sortu dute. Plateruenean lau abesti eskainiko dituzte. Horietako hiru ezagunak dira: Lain taldearen *Ez nazazu iratzarri* eta *Aukera berri bat* eta Oskorriren *Aita-semeak*. Laugarrena ez da ezaguna, baina bai denetan bereziena, Jokin Garcia lagun durangarrak konposatu dielako: *Kale erdian*.

Xaramel taldeak ere jakinarazi du zein abesti eskainiko dituzten datorren bariku iluntzean. Lehenengo hirurak boskoteak abestuko ditu: *Ilargi Bete*, *Zu zara* (Mocedadesena) eta *Txoriak Txori* (Mikel Laborena). Lehenengoa instrumenturik gabe abestuko dute eta beste biak Maite Molina pianoan dela. Beste abesti bat Maite Molina eta Amaiur Azkarateren artean abestuko dute; Itoizen *Hemen gaude*. Azkenik, Molinaren pianoa lagun duela, Azkaratek abesti bi bakarka abestuko ditu. Horietako bat berak konposatua da: *Aita*. Beste abestia Euskal Herriko eta atzerriko hainbat tokitan entzun dute: Ken 7 taldearen *Itsasoa gara*. ∎ J.D.

## TALDEAK

- **Durangoko Xaramel:** Amaiur Azkarte, Ainhoa Devesa, Maite Molina, Itziar Muguerza eta Maialen Izagirre
- **Durangoko Ametsetatik Errealitatera:** Irati Alonso eta Itsaso Abaunza
- **Durangoko Geu Be taldea.**
- **Hirukotea:** Iraitz Udabe, Iraia Rojo eta Irantzu Rojo.
- **Bikotea:** Esti Olivares eta Olatz Goikoetxea.
- **Bikotea:** Leire eta Iker Elustondo.

laguntzaileak
berrizko udala
Garaiko Udala
Iurretako Elizateko Udala
Mallabiko Udala
Otxandioko Udala
Zaldibarko Udala


EUSKO LABEL
Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior
Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak
Benetakoaz gozatu
Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balioesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozatzen jakitea da.
Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.
EUSKO LABEL
Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior
www.benetakoazgozatu.com
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA
hazi
Landa eta itsas ingurunearen garapenerako Eusko Jaurlaritzaren Korporazioa
Corporación del Gobierno Vasco para el desarrollo del medio rural y marino

# INMOBILIARIAK >

AMBOTO INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

• SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
• Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
• 2 logelako apartamentua. Egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. 114.000€. Berriztatzeko.
• ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
• EZKURDI: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua.
• FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
• HERRIKO GUDARIEN: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea.
• ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Zonalde onean kokatua.
• ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
• BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

### LEKEITIO

• 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

### ABADIÑO

• ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
• 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

### ATXONDO

• 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

• 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

## LUR SAILAK SALGAI

### IURRETA

• 2.000 m2-ko lursaila salgai. Leku zoragarria. Sarbide ona.
• 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

• 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruitarbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

• 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu.Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

• 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

### ABADIÑO

• Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### ZORNOTZA

• LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

## BASERRIAK SALGAI

### ABADIÑO

• 5 hektareako lursaila duen baserria. Zonalde zoragarria.

### BERRIZ

• MURGOITIOn kokatuta dagoen baserria salgai.Nekazalturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politak.

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

## ETXEBIZITZAK SALGAI

• ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
• DURANGO-ERRETENTXU: Adosatuak salgai, bifamiliarrak eta unifamiliarrak.
• BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
• OTXANDIO: Adosatuak. Eraikuntza berriak. 174.500€-tik aurrera.
ETXEBIZITZAK SALGAI
• ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxoa.
• ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
• ANTSO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzeko.
• ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
• ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
• BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, 2/3 logela eta komuna.
• BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
• BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
• ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
• GALLANDA: Estreinatzeko. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
• GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trastelekua.
• EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
• F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
• F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
